



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2024ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.  
**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2023ko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2023ko abenduaren 22a

### **1. ERABAKIA: LANDA EREMUEK ELEKTRIFIKATZEA – « FACE AB (EXTENSION SOUTERRAINE) 2023 PROGRAMA» PROIEKTUAREN ETA HERRIAREN ZATIAREN FINANTZAZIOAREN ONARPENA – 23EX103 AFERA**

*( 9.1nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Territoire d'Energie des Pyrénées Atlantiques-ri eskatu diola honako lanen ikerketa abiatzea: GUIROY Xavier jaunaren jabegoan elektrizitate horniduraren hedapena.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta Hazparneko COREBA enpresak eginen dituela.

Auzapezak zehaztu du lan horiek «FACE AB (Extension souterraine) 2023» Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeztuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, lehenago aipatu lanen eginaraztea, eta Territoire d'Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,
- **ONARTU DITU**, lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

- Lanen zenbatekoa zergak barne  
16 886.23 €
- Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak  
1 688.63 €
- TE64 ren kudeaketa gastuak  
703.59 €

OROTARA 19 278.45 €

- **ONARTU DU**, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:

- FACE parte hartzea 12 383.24 €
- TE64k aurretiaz ordaindutako BEZ 3 095.80 €
- Herriak funts libreekin ordainduko dituen lanak 3 095.82 €
- Herriak funts libreekin ordainduko dituen kudeaketa gastuak (funts libreetatik ordaintzekoa)  
703.59 €

OROTARA 19 278.45 €

Herriak zehazki ordaindu beharko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da. Gainera, herriak bere parte hartze funts libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

- **ONARTU DU**, herriaren jabego pribatuan balizko pasaia eskubide baten ematea.
- Honako erabakia legezketasun kontrolera **IGORRI DU**.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urtarrilaren 4an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2024/01/08an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/01/08an.